

Espainiako Konstituzioa

149. artikulua

1. Honako gai hauek estatuaren eskumen eskusibokoak dira:

[...]

Legegintza zibila; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, forudunak nahiz bereziak, iraurarazi, aldarazi eta garatu ahal izango dituzte, halakoak direnetan. Edozein kasutan, arau juridikoen aplikazio eta eragingarritasunari buruzko erregelak; ezkontzeko formei dagozkien harreman juridiko-zibilak; erregistro eta agerkari publikoen antolakuntza; kontratu-tako betebeharren oinarriak; lege-gatazkak konpontzeko arauak eta zuzenbidearen iturriak zehazten dituztenak, betiere, azken kasu horretan, foru-zuzenbidearen edo zuzenbide bereziaren arauak errespetatuz.